

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Jada izena eman daiteke SNE-NLk antolatutako jardunaldian: “Ibilgailu elektrikoa eta haren azpiegituren segurtasuna”

Otsailaren 19an egingo da, CENIFERen instalazioetan, eta 1053/2014 Errege Dekretuaren ikuspen xehatua emango da bertan

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 31

Otsailaren 19an (asteartea), CENIFERen instalazioetan, Eskubide Sozialen Sailaren mende dagoen Servicio Navarro de Empleo – Nafar Lansareak (SNE-NL) Nafarroako Industria Graduatu eta Ingeniari Teknikoen Elkargokoarekin batera antolatu duen “Ibilgailu elektrikoa eta haren azpiegituren segurtasuna” prestakuntza-jardunaldia egingo da.

Saioak 8 orduko iraupena izango du eta 1053/2014 Errege Dekretuaren ikuspegi xehatua emango da bertan, zeinetan BT 52 Instrukzio Tekniko Osagarria onartzen den: “instalazioak xede bereziekin. Ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko azpiegitura”. Arauak arlo ezberdinetan du eragina: flota pribatuak, aparkaleku publikoak, bide publikoa, familia bakarreko etxebizitzak eta jabetza horizontaleko eraikinak.

Jardunaldira bertaratzen direnak Ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko instalazioak diseinatu, mantendu, erabili, ikuskatu eta kudeatzeko gai izan daitezen lortu nahi da, Errege Dekretu honen irismenaren barruan.

Jardunaldiaren publiko-xedea honakoa da: ekoizpen-, garraio- eta banaketa-enpresetako langile teknikoak; mantentze-enpresak; ingeniariak; ikuskapeneko enpresak; behe-tentsioko instalazio elektrikoaren eremuko instalatzaileak; finka-administratzaileak; ibilgailuen kontzesionarioak, zamaren kudeatzaileak eta ibilgailu elektrikoaren azken erabiltzaileak.

9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara egingo da, eta eguerdian gosegarria eskainiko da, CENIFERen eraikin bioklimatikoan (Aduana kalea z/g 31119 Imarkoain, Nafarroa). Helburuak eta programak eskuragarri daude [hemen](#).

SGS enpresa suitzarraren Ikusapen eta Asistentzia Teknikoko Saileko eta Zerbitzu Elektrikoaren Garapeneko arduradunen kontura izango da.

SNE-NLk eta [NaVEACek](#), emango diote hasiera. Azken hori Foru Gobernuak, Nafarroan ibilgailu elektrikoa, autonomia eta konektatua sustatzeko xedez, Sodenaren bitartez sustatutako proiektua da eta 60 enpresa traktoreko plataforma bat du.

Foru Erkidegoak Espezializazio Adimendunaren Estrategia (S3) definitu du eta 24 erronka estrategikoen artean ibilgailu elektrikoa

sustatzea lortu nahi du lehenen, “automozioaren industria-sektorearen ahalmena horrelako ibilgailuak eta osagaiak garatzera bideratzeko eta Nafarroan mugikortasun-soluzio berriak ezartzen eta garatzen laguntzeko, ibilgailu konektatuta eta gidatze autonomoa, kasu.

Jardunaldian parte hartu nahi duenak <https://goo.gl/forms/VTxJeye5zBk9GzEh2> helbidean izena eman dezake.